

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **47/2019 Mozioa, azaroaren 27koa, Arabako eta Euskadiko herritarrak jokoaren eta apustuen negozioaren aurrean babesteari buruz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko azaroaren 27an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

47/2019 Mozioa, azaroaren 27koa, Arabako eta Euskadiko herritarrak jokoaren eta apustuen negozioaren aurrean babesteari buruz

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote azter eta berrikus ditzala foru-arauek jokoaren eta apustuen jardueri ezartzen dizkieten zerga-motak, eta aurkez dezala azterketa hori Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Batzordean sei hilabeteko epean.

2. Arabako Batzar Nagusiek administrazio eskudunei eta espazio publikoen titularrei eskatzen diete bete eta gauzatu dezatela 120/2016 Dekretuaren, uztailaren 27koaren, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokora onesten duenaren 77. artikulua.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari zein arlo horretan eskumena duten gainerako erakundeei ere eskatzen diete ludopatiaren prebentziozko kanpainak handitzea, baita ludopatiaren gaineko tratamendua egiteko programak ere, eskolako ikasleen, gazteen eta biztanleriaren atal zaugarrienen artean, jarduera mota horiek garatzen ari diren elkarteekin lankidetzan.

4. Arabako Batzar Nagusiek Espainiako Gobernuari eskatzen diote jokoa eta jokoaren publizitatea arautzea online plataformetan, adingabekoenganako eta pertsona zaugarrienganako babesa eta ludopatiaren aurkako prebentzioa lehenetsiz.

5. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote alda ditzala 4/1991 Legea, azaroaren 8koa, Euskal Herriko Autonomi Elkartean jokoa arautzekoa, eta horren garapen-araudia, txosten teknikoetan oinarriturik, eta beti ere, adingabekoenganako eta pertsona zaugarrienganako babesa eta ludopatiaren aurreko prebentzioa lehenetsiz.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 27a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**